

Baso jabeen batez besteko adina 64 urtekoa da

Aldundiak hiru laguntza-eskaera jaso zituen iaz, lurrak gazteagoei eskualdatzeko

Belaunaldien arteko erreleboa bultzatzea Gipuzkoako Baso Elkartearen ardatz estrategiko bat da, baita Gipuzkoako Foru Aldundiaren lehentasunezko helburuetako bat ere. Kontuan izan behar dugu baso-laguntzei buruzko dekretuaren azken deialdian diru-laguntzen eskatzaileen batez besteko adina 64 urtekoa izan zela. Diru-laguntzen 1.210 eskatzaileetatik, 560k (% 46,2) 67 urte baino gehiago zituzten, eta 324k 55 urte baino gutxiago (% 26,7).

Gipuzkoako Foru Aldundiaren datuen arabera, azken urtean, hiru diru-laguntza eskaera egin dira pertsona gazteago bati lurraldeko baso-ustiategi bat eskualdatzeko. Guztira, 23 hektarea eskuz aldatzeko laguntzak eman dituzte.

Ildo horretan, Aldundiak Kimuberritu plana ere abian jarri du, belaunaldi-erreleboa errazteko eta basogintza-sektorea profesionalizatzeko, eta horri buruzko zenbait argibide aurreratu ditu Gure Lurra aldizkarian. Bertan, nekazari berrientzako Gaztenek programan izena ematen dutenei basogintza sustatzeko laguntza osagarriak iragartzen dizkie.

Eta Gaztenek-en sartzen ez direnei ere irekitzen die atea, prestakuntza, mendia erosteko diru-laguntzak eta basogintza-proiektu bati ekiteko monitorizazioa eta tutoretza eskuratzeko aukera emanez, baita bekak eskuratzeko aukera ere, Gaztenek programan bezala.

GIPUZKOAKO
BASO ELKARTEA

ASOCIACIÓN DE PROPIETARIOS
FORESTALES DE GIPUZKOA